Bilbo-Bilbao

Emakumeontzako hiri debekatuaren mapa
Mapa de la ciudad prohibida para las mujeres.

Sarritan hirietako espazio urbanoak oso modu kaotikoan antolatuak izan dira. Desantolamendu horrek emakumeon kontrako biolentzia bermatzen duen status urbanistiko bat eragin du. Badira makinatxo bat kontu genero ikuspegitik errespetuzko baldintzarik eskaintzen ez dutenak eta guztien parte hartze zuzena eskatzen dutenak. Eragile guztien parte hartze zuzena da bilatu nahi duguna; bai emakumeontzako segurtasun eza zein lekutan bermatzen den diagnostikatzeko eta baita errealitate hauei irtenbidea emateko. Finean, Bilboren diseinu urbanistikoa eta emakumeen kontrako biolentziaren arteko harremanen gainean sakonduko dugu.

A menudo los espacios urbanos han sido organizados de manera caótica. Esa desorganización provoca un status urbanístico que posibilita la violencia contra las mujeres. existen multiples cuestiones que no ofrecen condiciones de respeto desde el puntode vista de género, cuestiones a resolver entre todas. Buscamos la intervención directa de todos los agentes, bien para diagnosticar los sitios en los que se produce una situación de inseguridad para mujeres, bien para dar una salida a estas realidades. Al fin y al cabo, buscamos profundizar en la relación entre el diseño urbanístico de Bilbao y la violencia contra las mujeres.

gite ipes

Bizkaiko Foru Aldundia — Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
Diputación Foral de Bizkaia — Gabinete del Diputado General

1-OTXARKOAGA

GRUPO MAKALDI

Txarto zainduta, asfaltatu gabe. Zabortegi itxura. Argiztapen gutxi eta espazio tranpa ugari. Konponbideak: Garbitu, argi egokiak eta espaloiak jarri.
Mal cuidado, sin asfaltar. Parece un vertedero. Poca luminosidad y muchos espacios-trampa. Solución: Acondicionarlo, poner aceras e iluminar correctamente


ELIZAREN ATZEKALDEA

Etxez eta zuhaitzez inguratutako plazatxoa. Zuhaitzek argia sartzea eragozten dute. Jendeak gauez bertan lo egiten du. Konponbideak: Argiak lekuz aldatu.
Plazuela rodeada de árboles y casas. Los árboles dificultan la luminosidad. La gente pernocta allí. Solución: Cambiar las luces de sitio.

MERCADO CHINO

Eraikin zaharkitu eta laberintikoa. Argirik ez. Izkutaleku asko. Laguntza lortzeko aukera gutxi. Konponbideak: Argiztatu, eraikina espaloiaren maila berera egokitu.
Edificio viejo y laberíntico. Sin luz. Muchos escondites. Pocas opciones de ser ayudada. Solución: Iluminar. Equiparar la altura del edificio y la de la acera.

SANTUTXU-OTXARKOAGA

4 karrileko errepidea. Alde batera institutoa eta urrunera etxe altuak. Bakartia eta argirik gabea. Konponbideak: Argiztapena. Kotxe eta oinezkoen arteko oreka.
Vía de 4 carriles. A un lado el instituto, a otro grandes edificios. Aislado y sin luz. Solución: Iluminación. Equilibrio entre coches y peatones.

COLEGIO ALEMANETIK

Oso iluna. Gauez ez dago inor ere. Errepide handia alde batera eta bestera. Espazio tranpa ugari. Konponbideak: Argitu. Etxe eta ikastetxeetarako sarbideak seinalizatu.
Muy oscuro. No hay nadie de noche. Hay una gran vía a ambos lados. Numerosos espacios-trampa. Solución: Iluminar. Señalizar las entradas a las casas y al colegio.

2-SANTUTXU

CAMINO DEL BOSQUE

Argiztapen gutxiko bide zidorra. Aldapatsua, izkuta-leku askorekin. Ihesbiderik ez. Espaloi txikiak eta kotxez gainezka. Konponbideak: argiztapen egokia, espaloi handiagoak, ingurua zaindu.
Poca iluminación. Cuesta pronunciada, con muchos escondites. Sin salida. Aceras mínimas y llenas de coches. Solución: Iluminación adecuada, agrandar las aceras, cuidar el entorno.

SANTUTXU FIKA ESKAILERAK

Argirik gabeko eskailerak, zikinak. Iluna, ihesbiderik gabekoa. Espazio tranpa ugari eta inork zu entzuteko aukera gutxi. Konponbideak: Eskaileren birmoldaketa.
Escaleras sin luz, sucias. Espacio oscuro, sin salida. Numerosos espacios-trampa y poca acústica. Solución: Rediseño de las escaleras.


SANTUTXU-ITURRIBIDE

Argiztapen eskasa, inguruetan ezkutalekuak, leku bakartia. Oso maldatsua eta ezindu fisikoentzako egokitu gabea. Konponbideak: Argiztapen egokiagoa, eskailera hegalak kendu.
Poca iluminación, escondites alrededor. Lugar solitario. Mucha pendiente y sin acondicionar para disminuidas. Solución: Iluminación adecuada, quitar las barandillas.

GRUPO SAGARMINAGA

Zutabe eta ataripe ugari. Ezkutaleku asko. Argi gutxi. Konponbideak: Argiztapen egokia eta kopuruz handiagoa, zutabe inguruetan ispiluak, oztopo diren elementu kengarriak saihestu.
Numerosas columnas y soportales. Muchos escondites. Poca luz. Solución: Iluminación adecuada, espejos alrededor de las columnas, evitar los elementos opcionales que obstaculizan.

SANTUTXU KALEA

Ezkutaleku ugari. Jende gutxi ibiltzen da gabaz. Konponbideak: Argiztapen egokia. Jendea erakartzen duen berrikuntza urbanistiko bat eraiki (taxi geltokia).
Lleno de escondites. Por la noche no hay nadie. Solución: Iluminación adecuada. Crear un elemento urbanístico que atraiga a gente (una parada de taxi).

3-SAN FRANCISCO

CANTARRANAS

Botatzeko modu eta zorian dagoen kalea. Argirik ez. Inor ez da ibiltzen. Ez dago espaloirik, handik ez da inora joaten. Konponbideak: Auzo osoaren berdiseinua.
Calle a punto de derrumbarse. No hay luz, no suele andar nadie. No hay aceras. No conduce a ninguna parte. Solución: Rediseño integral del barrio.

ESCALERAS DE STA.ANA

Aldapa handia, toki isolatua, zaindu gabea, heroinazaleek erabiltzen dute. Konponbideak: Harrizko petrila kendu, argi guztiak ipini eskaileretara begira. Arlanpa zabal eta leunagoa.
Cuesta pronunciada. Lugar aislado, sin cuidar. Frecuentado por heroinómanos. Solución: Quitar el petril de piedra, orientar las luces a la escalera. Reducir la cuesta y ensancharla.

PUENTE DE MARZANA

Zubia bertan bukatzen da. Zubi aldapatsuegia. Aulkitxoekin erabiltezina. Parkea zikin dago, zaindugabe. Konponbideak: Zubiaren birmoldaketa eta parkea txukuntzea.
Fin del puente. Cuesta excesiva. Imposible para carritos y sillas de ruedas. El parque está sucio. Solución: Rediseño del puente y acondicionamiento del parque.

MIRIBILLA PARKEA

Isolatua erabat eta irisgarritasun txarrekoa. Argiztapen eskasa. Ez da inor bizi inguruan. Konponbideak: Irisgarriago egin eta sarbideak erraztu, argiak konpondu.
Totalmente aislado y con mala accesibilidad. Escasa iluminación. Zona deshabitada. Solución: Hacerlo más accesible y facilitar las entradas. Arreglar las luces.

SAN FRANCISCO

Auzoaren egoera sozio ekonomiko txarraren isla da kalea. Konponbideak: Espaloiak zabaldu eta txukundu, argiak jaitsi, garbitu eta auzoaren egiturazko arazoei irtenbidea bilatu.
La calle es fiel reflejo de la mala situación socioeconómica del barrio. Solución: Ensanchar y adecentar las aceras, bajar las luces, y buscar solución a los problemas estructurales del barrio.

SOMBRERERIA

Kale txiki eta estua, bi sarrera-irteera Plaza Berrira eta bestea Unamunora. Argiztapen eskasa. Gabean dena itxita. Konponbideak: Sarrera-irteerak seinaleztatu eta ispiluak ipini.
Calle pequeña y estrecha, con dos entradas-salidas. Escasa luminosidad. De noche todo está cerrado. Solución: Señalizar las entradas-salidas y colocar espejos.

ITURRIBIDE

Kale oso luzea, gauez inor ere ez. Izkutaleku ugari, ihesbideak baino tranpak diren irteerak. Konponbideak: Argi egokiagoa, kantoietan ispiluak eta ihesbide ez direnak seinalatu.
Calle muy larga, sin nadie a las noches. Muchos recovecos, salidas que son trampas en vez de huidas. Solución: Luz adecuada, espejos en los cantones y señalización de las calles sin salida.

RONDA

Argiztapen eskasa, laguntza lortzen zaila. Gauean hutsik.Espazio tranpa ugari, kantoi handidun atariak. Konponbideak: Argiztapen egokia eta kantoietan ispiluak ipini.
Escasa luminosidad, dificil lograr ayuda. Vacia a las noches. Numerosos espacios trampa. Portales con grandes cantones. Solución: Iluminación adecuada y espejos en los cantones.


PRIM

Argiztapen gutxi, etxe hutsak, zaindugabeak. Kalearen ibilbidea ez da bere osotasunean ikusten. Konponbideak: Argiztapen egokiagoa, inguruak txukundu, etxe eta lokal hutsak egoki erabili.
Poca luminosidad, casas vacias, sin cuidar. No se divisa el trayecto de la calle. Solución: Iluminación adecuada, adecentar los alrededores, utilización de las casas y lonjas vacias.

Arkupez beteta, habe askorekin. Argiztapen txarra. Irteerak seinaleztatu gabe. Espazio tranpa ugari, laguntza lortzea zaila da. Konponbideak: Argi egokiak arkupetan eta seinaleztatu.
Lleno de arcos, con múltiples columnas. Mala iluminación. Salidas sin señalizar. Muchos espacio-trampa. Difícil lograr ayuda. Solución: Luces adecuadas bajo los arcos y señalización.

4-ALTAMIRA

ALTAMIRAKO BIDEA

Ez dago oinezkoentzat pentsatua. Bide bakartia. Kotxeak nonahi aparkatuta. Konponbideak: Argi gehiago, espaloiak zabaldu eta eskailerak ikusteko ispiluak eta seinaleak.
No está pensado para peatones. Camino solitario. Coches aparcados por todas partes. Solución: Más luz, ensanchamiento de las aceras. Colocación de espejos y señales en las escaleras.

LA BOLERA CARBONERA

Zulo beltza. Bide bakarra da oinezkoentzat. Guztiz utzita. Konponbideak: Bidea konpondu, argiak jarri, espaloiak ipini, eskailerak argitu eta seinaleztatu.
Un agujero negro. Camino obligado para peatones. Dejado. Solución: Arreglar el camino, colocar luces y aceras, iluminar las escaleras y señalizar.

PARADA DE AUTOBUS

Argi gutxi eta leku bakartia. Konponbideak: Inguruko etxeetako argiak hobetu.
Poca luz. Lugar solitario. Solución: Mejorar la iluminación de las casas de alrededor.

ESKOLEN ARTEKO BIDEA

Eraikin zaharkitua, zutoinek eusten dute. Argi gutxi dauka eta eskailera asko. Konponbideak: Eskola zaharrak hustu eta berriei eman haien erabilera.
Edificio envejecido, apoyado en postes. Tiene poca luz y muchas escaleras. Solución: Vaciar las escuelas viejas y trasladar a las nuevas su aplicación.

PASO ENTRE ESCUELAS

Oso iluna, eta oso gutxi zainduta. Potzuz beteta eta aldapatsua. Konponbideak: Argitu. Ondoko eskola berriak eta lurra konpondu, eta beste erabilera bat eman.
Muy oscuro y muy poco cuidado. Lleno de charcos y con mucha pendiente. Solución: Iluminar. Arreglar las escuelas adyacentes y el firme.

5-TXURDINAGA

GABRIEL ARESTI

Sakonunea. Toki bakartia. Etxe isolatuak. Trafiko handia. Espazio tranpa ugari. Konponbideak: Espaloi zabalak direnez bidegorriak egin eta jesarlekuak. Eskailerak argitu.
Hondonada. Lugar solitario. Casas aisladas. Muchos espacios-trampa. Solución: Al ser aceras anchas, construcción de bidegorris y asientos. Iluminación de la escalera.

COLEGIO ALEMAN

Leku ilun, zeharo bakartia. Erabat izkutuan geratzen da. Konponbideak: Argiak ipini eta seinaleztatu. Telefono kabina bat jarri.
Lugar oscuro, muy solitario. Queda en penumbra parte de la entrada. Solución: Poner luces y señalizar. Posibilidad de colocar una cabina de teléfono.


PORTALES

Zutabez eta ezkutalekuz jositako lekua. Eraso sexualak eman dira bertan. Konponbideak: Argi automatikoak. Atariko hiru hormak kristalezkoak izatea.
Lugar plagado de columnas y escondrijos. Han ocurrido ataques sexuales. Solución: Luces automáticas. Colocar tres de las paredes del portal en cristal.

ARTALANDIO

Zulo iluna. Oso argi gutxi. Ihesbide gutxi. Errez antzeman daitezke norberaren mugimenduak. Konponbideak: Tunela eta inguruak argitu eta pintatu. Txokoak ezabatu.
Es un agujero negro. Muy poca luz. Se adivinan con facilidad los movimientos. Solución: Iluminar y pintar el tunel y los alrededores. Eliminar los recovecos.



Asko urbanizatutako parkea. Hornidura elementoek espazio tranpak sortzen dituzte. Konponbideak: Inguruak zaindu eta txukundu. Hornidura batzuk argitu.
Parque muy urbanizado. Los elementos decorativos crean espacios-trampa. Solución: Cuidar y adecentar los alrededores. Iluminar algunos elementos decorativos.

6-ERREKALDE

AMEZOLAKO ZUTABEAK

Etxe hutsak eta pabilioi industrialak. Kotxe trafiko handia. Argiak kotxeentzat pentsatuak. Konponbideak: Espaloiak zabaldu, oinezkoentzako argiak. Semaforoa jarri.
Casas vacias y pabellones industriales. Las luces están pensadas para el tráfico rodado. Solución: Ensanchar las aceras, luces para los peatones. Semáforo.

CALLE JAEN

Oso bakartia, iluna. Espazio tranpak ditu (eskumatan eskailerak eta parking-a). Konponbideak: Oinezkoentzako argiak. Zebrabidea. Pintatu. Ispiluak bidea ikusteko.
Muy solitario, oscuro. Tiene espacios trampa (a la derecha escaleras y parking). Solución: Luces para los peatones. Paso de cebra. Pintar. Espejos para visibilizar el camino.

LARRASKITU

Aldapa handia. Ez da ikusten bukaera. Argirik ez espaloian. Arriskutsua. Espazio tranpa batzuk. Konponbideak: Aldapa kendu. Kotxeei lehentasuna kendu.
Cuesta pronunciada, no se ve el final. No hay luz en las aceras. Peligroso. Algunos espacios trampa. Solución: Quitar la cuesta y la preferencia del tráfico rodado.

ZUBI BERRIA

Autopistak sortutako zuloa kotxeak aparkatzeko aprobetxatu dena. Konponbideak: Argi baxuagoak. Pareta pintatu. Ingurua zaindu.
Autopista sortutako zuloa kotxeak aparkatzeko aprobetxatu dena. Konponbideak: Argi baxuagoak. Pareta pintatu. Ingurua zaindu.
Agujero creado por la autopista y que se aprovecha como parking. Solución: Luces más bajas. Pintar la pared. Cuidar el entorno.

7-ZAZPI KALEAK

AVDA. DEL FERROCARRIL

Ez dago auzo bizitzarik eta gauez bakartia da. Espazio tranpak daude eta laguntza lortzeko aukera gutxi dago. Konponbidea: Telefono kabina bat edo taxi geltoki bat jarri.
No hay vida de barrio y de noche es muy solitario. Existen espacios-trampa. Pocas opciones de pedir ayuda. Solución: Colocar una cabina telefónica o una parada de taxis.

JAEN KALEA

Egin dituzten etxeek ataripe ugari dauzkate eta hori berez da arriskugunea. Ez dauka auzo bizitzarik. Lokal komertzialak hutsik. Konponbideak: Argiak ipini oinezkoentzako.
Los edificios están repletos de soportales y eso supone un peligro. No hay vida de barrio. Locales comerciales en desuso. Solución: Luces pensadas para peatones.

KIRIKIÑO

Argiztapen eskasa dago, autoentzako bakarrik pentsatua. Izkutalekuak ditu eta ez da ondo zaindu-ta egoten. Konponbideak: Argia hobetu. Inguruan duen harresia kendu. Telefono kabina bat ipini.
Escasa iluminación, pensada exclusivamente para los coches. Tiene escondites y no está bien cuidado. Solución: Mejorar la iluminación. Quitar el muro que lo rodea. Poner una cabina telefónica.

ESKURTZE PARKEA

Argiztapen eskasa. Oso bihurgunetsua da. Ez duzu bide guztia aldez aurretik ikusten. Konponbideak: Argiztapen egokiagoa eta kopuruz ere handiagoa.
Argiztapen eskasa. Oso bihurgunetsua da. Ez duzu bide guztia aldez aurretik ikusten. Konponbideak: Argiztapen egokiagoa eta kopuruz ere handiagoa.
Poca iluminación. Muy sinuoso. No se ve todo el camino. Solución: Mejor y mayor iluminación.

8-IRALA

Historikoki beldurra ematen duen lekua. Argazkirik ez dago debekatuta dagoelako.
Lugar que historicamente ha inspirado miedo. No hay fotografía puesto que está prohibido.

9-ABANDO-INDAUTXU

ZABALBURU

Inguru guztia iluna da. Zabalburuko etxe-orratzen behealdea txoko ilunez beteta dago. Konponbideak: Obrak iraun bitartean ez da ikusten konponbide argirik.
Zona muy oscura en general. Los bajos de la calle N. Alkorta son desaconsejables. Solución: Mientras duren las obras no se ve solución clara.

DOÑA CASILDA

Pergolako gunea eta oraingo gune berria desatseginak dira. Jende arraroa ibiltzen da. Konponbideak: Erabilera aniztasuna bultzatu, telefono kabina bat, argia.
La zona de la Pergola y la nueva son desagradables. Presencia de gente extraña. Solución: Impulsar la utilización del parque, una cabina de teléfono y poner más luz.

HURTADO AMEZAGA

Pasoko leku bihurtu da, nortasunik gabea. Batbatean utzik geratzen da Konponbideak: Gehiago argitu, margotu, eta oinezkoentzat igarobide gehiago jarri, zebrabide gehiago.
Se ha convertido en una zona de paso, se queda de repente vacía. Solución: Iluminar, pintar, facilitar el acceso de una acera a otra. Poner pasos de cebra.

GUGGENHEIMEN ALDE BERRIA

Aparkaleku arriskutsuak, izkutaleku ugari, sentsazio irreala. Konponbideak: Aparkalekuak hobetu, izkutalekuak argitu, telefono kabina jarri.
Parkings peligrosos, muchos recovecos y espacios trampa, sensación de irrealidad. Solución: Iluminación en los escondites, acondicionar los parkings.

MAZARREDO

Oso iluna da. Lapurretak izaten dira. Eskailerak daude,baina ez da ezer ikusten. Konponbideak:Argiak, eta garraio publiko gehiago, oso isolatuta baitago.
Muy oscuro. Suele haber robos. Hay escaleras, pero no se ve nada. Solución: Iluminar. Más transporte público, puesto que queda aislado.

MIRIBILLA PARKEA

Inoiz ez dira handik pasatzen, nahiz eta Bilbora joateko bide laburragoa izan.Konponbidea: Auzo berria izanda espero da jendea etortzea eta aldatzea, baina, parkea oso aldapatsua da.
No pasan nunca por allí, a pesar de ser un atajo para llegar a Bilbao. Solución: Al ser un barrio nuevo se espera que llegue gente nueva, pero de momento está desangelado.

RAMON BARUA

Oso kale iluna. Inguru horretan atera zitzaion gizon bat elkarrizketatutako bati. Ez zion ezer egin, baina sustoa bai. Konponbidea: argia jarri.
Calle muy oscura. Una de las entrevistadas fue abordada por un hombre aquí. No le hizo nada, pero fue un gran susto. Solución: Iluminación.

SAN ADRIAN ABUSU BIDEA

Ez dago argirik eta oso jende gutxik erabiltzen du. Bihurgune asko . Konponbideak: Argiak jarri eta konpondu, erabiltzeko moduan utzi.
No hay luz y está infrautilizado. Muy sinuoso. Solución: Iluminación y arreglar, dejarlo de manera que pueda ser utilizado diariamente.

SAN ADRIAN KALEKO ATARIA

Etxeek dituzten arkupeak ezkutaleku izan daitezke. Droga trafikoa. Bi bahiketa saiakera izan dira. Konponbidea: Trafikoa gutxitu, kabinak jarri deitzeko.
Los soportales pueden ser escondites. Tráfico de drogas. Ha habido intentos de secuestro. Solución: Disminución del tráfico, cabinas para poder llamar.

MADARIAGA ETORBIDEA

Bakarti samarra, irtenbiderik gabekoa, autopistak muga ezartzen duelako. Konponbidea: Autoak gutxitu eta ekintza alternatiboetarako espazioak jarri, patinak, skate...
Muy solitario, sin salidas, la autopista es una frontera en si misma. Solución: Disminuir los coches y crear espacios para actividades alternativas: skate, patines...

10-ABUSU

ELIZAKO ALDAPA

Oso ilun egoten da eta jendea kotxeekin sartzen da handik atzeko aldera. Jende arraroa. Konponbideak: Aldapa konpondu, espaloi formala eta argia jarri.
Poca iluminación, la gente entra con el coche a la parte de atrás. Gente rara. Solución: Arreglar la cuesta, poner una acera decente e iluminar.

MIRAFLORES ZUBIA

Oso leku bakartia da. Konponbideak: Inguruan tabernak edo etxeak baleude hobeto egongo litzateke. Gehiago zaindu bide bazterreko belarrak, ez dute ikusten uzten.
Sitio muy solitario. Solución: Sería optimo si existiesen bares o casas alrededor. Cuidar la vegetación del borde del camino, no deja ver.

OLLARGAN GELTOKIA

Eskailerak beldurgarriak. Txoko eta bazter ugari. Leku erabat beldurgarria.Konponbideak: Konpondu egin beharko litzateke, eskailerak kendu edo aldatu, argiak.
Escaleras que dan miedo. Muchos escondites y rincones. Solución: Iluminación adecuada, arreglar la estación, quitar o remodelar las escaleras.

OLLARGANGO ESKAILERAK

Bakartiak, ilunak, aldapatsuak eta konplikatuak dira. Konponbideak: Beste alternatiba bat behar da, eskailerak fuera.
Solitarias, oscuras, con mucha pendiente y complicadas. Solución: Se necesita una alternativa, fuera las escaleras.

PARKEA

Beldurgarria oso bakartia delako,batez ere neguan.Gauez ez dira inoiz handik pasatzen. Konponbideak: Inondik ikusten ez diren txokoak ditu, hori aldatu.
Lleno de escondites. Por la noche no hay nadie. Muy solitario Solución: Tiene muchos escondites y recovecos, evitarlos y cambiar la distribución.

ZARANDOA ETORBIDEA

Argiak autoentzat bakarrik pentsatuak daude. Konponbidea: Kale hartan dauden lokalei erabilera desberdinak eman, auzoan bizitasuna izan dezan. Zebrabide gehiago.
Las luces están pensadas para los coches. Solución: Dar diferente uso a los locales de la zona, que el barrio tenga más vida. Más pasos de cebra.

JUAN ANTXIETA

Estua, trena alde batean eta bestean etxeen beheko partea. Tunelak ere baditu. Konponbidea: Trenaren aldean dagoen pareta bota, eta trenbide zaharra kendu.
Estrecho, en un lado el tren, y en el otro, las bajeras de la casa. Tuneles. Solución: Tirar la pared de al lado del tren, quitar la vieja estación.

ORIXE KALEA

Oso handia da, zabal, baina iluna eta bakartia. Segurtasun eza sortzen du, zergatia oso ondo azaldu ezin badute ere. Konponbidea: Argi gehiago eta oinezkoentzat egokiagoak jartzea.
Muygrande, ancha, pero oscura y solitaria. Transmite inseguridad, aunque no se sepa porqué. Solución: Más luz, más adecuada a los peatones.

PINTOR DE ETXENAGUSIA

Kale hutsa. Ez dago ezer. Bada etxe bat lehen Intxusi ikastola zenaren alboan, han eskailerak batzuk daude inora ez daramatenak. Konponbidea: Eskailerak kendu edo egokitu.
Calle vacia. No hay nada. Existe una casa al lado de lo que era la ikastola Intxusi, con unas escaleras que no llevan a ningún sitio. Solución: Quitar o acondicionar las escaleras.

SARRIKOKO PARKEA

Futbol zelaia eta Ibaigane eskola ingurua. Ilun, jende gutxi. Konponbidea: Argiak jarri, parkea hobeto integratu auzoan, orain Deustutik etortzeko oztopo bat baino ez da.
Campo de futbol y alrededores de la escuela Ibaigane, oscuro, solitario. Solución: Poner luz, integrar el parque en el barrio, ahora no es más que un obstáculo para llegar de Deusto.

11-BASURTU

GENERAL EGIA

Ez da ezer ikusten. Konponbidea:Ispiluak edo jarri erdira arte. Argia jarri
No se ve nada. Solución: Poner espejos sobre la cintura. Iluminación.

MASUSTEGIRAKO BIDEA

Oso bakartia, zaindu gabea. Bi futbol zelaitxo daude. Konponbidea: Argiak jarri eta espaloiak jarri. Telefono kabinak jarri.
Muy solitario, descuidado. Hay dos campos de futbol. Solución: Iluminación y construcción de aceras. Cabinas de teléfono.

OSPITALEKO PARKEA

Arriskutsua. Bi errepideren artean dago, irlatxo bat. Bidexka arraroak ditu, txoko ilunak. Konponbideak: Parkea atondu, beste erabilpen batzuk eman.
Peligroso. Es una islita entre dos caminos. Tiene paseos extraños. Solución: Acondicionamiento del parque, darle otros usos.

ERREKALDERAKO ESKAILERAK

Leku bakartia. Ezkutaleku bihur daitezke. Konponbidea: Zubiak duen aldapa kendu. Autoei lehentasuna kendu eta barandak kendu. Eskailerak seinaleztatu.
Sitio solitario, con muchos escondites. Solución: Reducir la cuesta, quitar la prioridad a los coches y eliminar la barandilla. Señalizar las escaleras.

TRENBIDEKO KALEA

Ez dago argirik bidean. Geltoki parean, bihurgunea egiten duen lekuan beldurra ematen du. Konponbidea: Argitu. Geltokiko bihurgunea konpondu. Trenbidea estali.
No hay luz en el camino. Ala altura de la estación, en la curva, da miedo. Solución: Iluminación. Arreglar la curva. Soterrar la estación.

CASTAÑOSETIK MORAZARA

Eskailerak ez ezik igogailu berriak ere beldurra ematen du. Konponbidea: Argiak jarri eta eskailerak konpondu. Igogailu berriaren inguruak zaindu.
No sólo las escaleras, el ascensor nuevo da miedo. Solución: Iluminación y arreglo de la escalera. Cuidar los alrededores del ascensor.

ETXEBARRIAKO IGOGAILUA

Batez ere igogailurako dagoen zubia eta inguru hori. Konponbidea: Pasabidea zabaldu eta aukera gehiago eskaini irteera-sarreretarako. Hobeto argiztatu ingurua.
Sobre todo el puente que va al ascensor es temible. Solución: Ensanchar el paso y habilitar más entradas y salidas. Mejorar la iluminación en general.

AUTOPISTAPEKO PASABIDEA

Gaur egun goitik pasatu ahal da eta ia inork ez ditu erabiltzen. Konponbidea: Pasabideak konpondu higigarritasuna hobetzeko eta horretarako pintatu, ispiluak eta argiak jarri.
Hoy en día se puede pasar por encima y no se utiliza apenas. Solución: Mejorar el paso, pintarlo, poner espejos y más luz.

KATUEN ESKAILERAK

Betidanik leku arriskutsua. Erasoak, lapurretak eta beste hainbat. Konponbidea: Argiztatu, zaindu eta bide alternatibo gehiago jarri, adibidez autoentzat baino ez den errepidea erabili ahal izatea.
Sitio peligroso desde siempre. Ataques, robos y demás. Solución: Iluminación, habilitar pasos alternativos, por ejemplo poder utilizar la carretera que hoy día solo usan los coches.

VIA VIEJA DE LEZAMA

Oso luzea eta bakartia. Alde batera ez dago ezer. Kotxe mugimendu arraroa. Konponbidea: Zaila. Argi gehiago, erdi erorita dauden etxeak zaindu. Auzoan bizitza eman.
Muy largo y solitario. No hay nada a un lado. Movimiento de coches raro. Solución: Dificil. Más luz, cuidar las casas semiderruidas. Dar vida a esta zona del barrio.

12-DEUSTU

BASABE ETXEGUNEKO PARKINA

Oso argi gutxi. Ez dago ihesbiderik eta ez da ondo ikusten aparkalekua. Konponbidea: Konpondu hobeto ikusteko (bai argia, bai aparkatzeko modua); beste bide bat egokitu auzorako.
Poca iluminación. No hay salida y no se ve el parking. Solución: Mejorar la visibilidad (tanto luz como la manera de aparcar); habilitar otro camino al barrio.

ERRIBERA

Erribera osoa.Oso argi gutxi. Konponbidea: Gutxienez, argia jartzea. Dauden egitasmoak direlaeta, zaila da proposamenak egitea, auzokideek aurkeztuak ditutze hainbat.
Toda la Ribera está desatendida. Solución: Al menos, más luz. Es dificil hacer propuestas al existir proyectos concretos para la zona, los vecinos se han pronunciado con propuestas directas.

GALERIAK

Tabernetako bezeroak desatseginak, jende arraroa, kanpotar asko. Konponbidea: Kontzientzia hartzeko kanpainak egin han elkartzen